HIZTEGIA

(Jon Bikendi Igarzabal)

TXIRRINDULARITZAKO ARROPA

Kamiseta termikoa

Kulot luzea

Maillot luzea

Kulot motzak

Eskularruak

Kaskoa

Maillot motza

Oinetakoa

Betaurrekoak

Besoetakoa

Galtzerdiak

Txamarra

Txalekoa

Zangoetakoa

Kapela

TXIRRINDULARITZAKO MATERIALA

Garraiatzeko poltsa

Erreminta-poltsa

Gurpil-puzgailua

Botilatxoa

Kilometro-kontagailua

Arrabola

Edari isotonikoa

Barratxo energetikoa

Lohi-babesa

BIZIKLETAREN ATALAK

1- Koadroa
2- Urkila
3- Indargetzailea (suspentsioa)
4- Eskulekua
5- Norabidea
6- Aldagailu eta balazta kableak
7- Eserlekua edo zela
8- Zela-tutua
9- Platerak
10- Biela
11- Pedala
12- Tximeleta
13- Erradioak
14- Haguna
15- Estalkia
16- Pinoiak
17- Katea
18- Aurreko desbideratzailea
19- Atzeko desbideratzailea/ kanbioa
20- Aldagailua
21- Tiroa
22- Balazta

TXIRRINDULARITZAKO HIZTEGIA

ABANTAILA: iheslariak tropelari hartu dioten denbora, taldeen arteko denbora

ABILDADE: indarra, kemena

ABIATU: irteera ematerakoan txirrindulariak martxan jartzea

ALDAPATXO: Repecho

ALDEA TXIKITU / GEHITU: bi txirrindulari/talde artean dagoen denbora txikitu/gehitu

ANOA-POSTUA: Lasterketan txirrindulari taldeko masaialariek janaria eta edaria biltzen dituen poltsa emateko lekua.

AURRERA JO: tropeletik alde egitea

AURREKOAK HARRAPATU: lasterketa batean, aldez aurretik alde egin dutenak harrapatzea.

BATEZ BESTEKO PENDIZA/MALDA/ALDAPA: pendiente media. Aldaparen gogortasunaren berri ematen duen neurria.

BEROKETA: Calentamiento

DENBORALDI: Temporada

EPAILEA: Juez

ERABAKIGARRIA: ihesaldi erabakigarria adibidez, helmugara iristen dena da.

ERASO-KOLPEA: Txirrindulariak erritmoa eta abiadura bat-batean bizkortzen dituen ekintza, aurkariak atzean utzi ahal izateko.

ERLOJUPEKOA: Taldekakoa edo banakakoa izan daiteke. Txirrindulari edo taldeek banaka egiten dute ibilbidea, eta probaren irabazlea ibilbide hori denborarik gutxienean egiten duena izaten da.

ERORIKOA: Caída

ERREPIDE SIGI-SAGATSUA: Carretera serpenteante

ERRODADOREA: Rodador

ESPRINTERRA: Sprinter

ETAPA: Egun bat baino gehiago irauten dituen txirrindulari proba bateko eguneko zatia.

GARAPEN MOTZA: Desarrollo ligero/ ágil

GARAPEN LUZEA: Desarrollo fuerte/ largo. “Atrancado”

GIHARRA: Músculo

GURPIL-ZULATZEA: Pinchazo

GURPILA HARTU: Txirrindulari bat bestearen atzean jartzen denean. Atzean dagoen txirrindulariaren aurreko gurpila aurretik doan txirrindulariaren atzeko gurpilari itsasten zaionean.

HAIZE-BABESA: Zuzenguneetan, haizeak saihetsetik jotzen duenean, haizearengandik babesteko txirrindulari-talde batek errepidearen zabalera hartuz hartzen duen itxurari deitzen zaio.

HELMUGA/ HELMUGA MARRA: Línea de meta

HUSTUTA GERATU: erabat indarrik gabe gelditzen denean txirrindularia, "pajara"

IBILBIDEA: Recorrido

IBILBIDE GORA-BEHERATSUA: Recorrido sube y baja

IBILBIDE GOGAIKARRIA: Recorrido/Terreno "pestoso"

IBILBIDE LAUA: Recorrido llano

IGOERA: Subida

IGOTZAILEA/ ESKALATZAILEA: Escalador

INDARTSU: sasoiez ondo dagoena

IHESALDIA: tropeletik alde egitea

IHESLARIAK IRENTSI: aurrekoak harrapatu

ITZULIA: etapa bat baino gehiago izanten dituen txirrindulari proba.

ITZULI HANDIA: 3 asteko iraupena, eta 20 etapa izaten dituen itzulia.

JEITSIERA: Descenso/ Bajada

KAXKOA: Cota

LASTERKETA: Carrera

LEPAUZTAIA: Clavícula

LIDERRA/ TALDE-BURUA: talde batean irabazteko gai dena, sailkapenean lehen sailkatua

MATXURA: bizikletan arazoren bat dagoenean. Arazo mekanikoren bat.

MALDA/ALDAPA: Pendiente

MALDA TENTEA / PIKOA: Cuesta/pendiente empinada

MEKANIKARIA: Mecánico

MENDATEA/PORTUA: Puerto

MENDATE ETZANA: portzentaia gutxiko maldak dituen mendatea. "tendido"

MORRONTZA LANA: beste txirrindulari edo talde-buruen mesedetan lan egitea.

NAGUSITU: bestea baino hobea izan, menderatu, irabazi

OLDARKORRA: jarrera erasotzailea duen txirrindularia.

PENDIZA: malda, aldapa. Aldapa baten ehunekoa adierazteko portzentaia erabiltzen da. %8ko pendiza/aldapa

SAILKAPENA: clasificación

SARIA: Premio

SASOIA: Forma

SASOI BETEAN EGON: Estar en plena forma

TAKTIKA: estrategia. Izatez, bi terminoek ez dute gauza bera esan nahi, baina xehetasun handiegitan sartzea iruditzen zait bien arteko bereizketa egiten hastea. Euskaraz ere taktika eta estrategia hitzak biak erabiltzen dira gaztelaniazkoen ordainetan.

TALDE: Equipo

TALDE-LAN: Trabajo de equipo

TXANDA-EMATEA: Aurrean tiraka haizea xurgatuz doan txirrindulariari, atseden har dezan bere aurrean beste txirrindulari bat jartzen zaionean.

TXAKALALDIA: Txirrindulari bat indarrik gabe ahituta geratzen den unea. Behar bezala ez jateagatik gertatu ohi da. "Pajara"

TXIRRINDULARI IRABAZLEA: errematatzailea. Garaipenak erraz lortzen dituena. "killer".

TROPELA: Pelotón

ZALEAK: aficionados

ZUZENDARIA: Director